

Irungo  
euskarazko  
hamabostekaria

# Irunero

326

Ekainak 1, 2018

- 2 Irun Atzo Irun Gaur
- 3 Berri laburrak
- 4-5 Noelia Lorenzori elkarrizketa
- 6 Txinzer
- 7 Caser Anaka
- 8 Kirolak: BAT-Aletismo Liga
- 9 Kirolak: Juanma Garate martxa
- 10 Kolaborazioa: Gorka Martinez
- 11 Haurren leihoa / Denborapasak
- 12 Bertsoak / Gazteen lanak
- 13 Beti Gazte: Maria Yuberori elkarrizketa
- 14 Gazte Informazioa
- 15 Agenda



Argazkia: Estudio Gover

 **PLAIAUNDI**  
INSTITUTUA

[www.plaiaundi.hezkuntza.net](http://www.plaiaundi.hezkuntza.net)



Plaiaundi s/ta IRUN (GIPUZKOA) - 48141 y 16-165 - 943 5176 47 - info@plaiaundi.eus

## Batxilergoa

Matrikula epea  
Ekainaren 20tik uztailaren 6ra

## Lanbide Heziketa

Aurreinskripzioa      Matrikula Epea  
Ekainaren 4tik 15era      Uztailaren 12tik 18ra

### ETENGABEKO FORMAKUNTZA FORMAKUNTZA DUALA

#### Batxilergoak

Zientzia  
- Giza eta Gizarte-Zientziak

#### Endi Mailako HZ

Mendekotasun-egaitasun duaden  
pertsonen zuzen arreta  
- Erabiltzaile Zuzen Osagaririk  
Mikroinformatika Sistemak eta Sareak  
Administrazio Kudeaketa

#### Goi Mailako HZ

- Elkartaritza
- Haur Heziketa
- Administrazio eta Finantza
- Dietetika
- Laborategi Klinikoa eta Biomedikoa
- Gaitza eta Logistika
- Nazioarteko Merkataritza
- Web Aplikazioen Garapena
- Plataformen Aurrerako Aplikazioen Garapena

**REQUEJO RETEGUI, RICARDO**


Argazkia REF: 1471

Musikaria. 1938 urtean Irunen jaioa. Donostiako Kontserbatorioan hasi zituen bere ikasketak, eta amaieran Piano Karrera Amaierako Lehen Saria jaso zuen. 1957 urtean Parisko Musikako Goi Mailako Kontserbatorio Nazionalean sartu zen. Ondoren, 1962an Genevako Kontserbatorioan ( Suitza) sartu zen. 1967 eta 1970 urteen artean, berriz, Alemanian ikasten jarraitu zuen Deutsche Akademische Austauschdienst eta Humboldt Fundazioak emandako beka bati esker. Horrez gain, Darlington (Ingalaterra), Santiago de Compostela , Cascais (Portugal) eta Siena (Italia) bezalako hirietako ikastaroetan parte hartu du.

Bere bizitzan zehar jasotako sari garrantzitsuen artean, azpimarratzekoa da V. Perlemuter klasean eskuratutako Lehen Piano Saria. Ourenseko Nazioarteko Piano Lehiaketako Saria eta Genevako Kontserbatorioko Lehenengo Saria eta Sari Berezia ere irabazi zituen. Hamburgoko Goi-mailako Musika Eskolan, Madrilgo Goi-mailako Kantu Eskolan, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko Goi-mailako Eskolan pedagogia klaseak eman ditu.

**Iturria: Agustin Morate.  
Irun y sus gentes.**

**IRUNERO**
**Erredakzioa eta maketazioa:**

Joseba Arozena  
Unai Oiartzun  
Ainara Berges

**Euskara zuzentzailea:**

Unai Oiartzun

**Publizitatea:**

Amaia Terrazas  
(amaia@irunero.eus)  
Ion Otxoa  
(ion@irunero.eus)

**Diseinuaren eraberritzea:**

Andrea Gomez Arocena

**Argitaratzailea:**

837 comunicación y publicidad S.L  
www.837comunicacion.com

**ISSN:**

1134-0606

**Lege gordailua: SS-230-94**

**Tel:** 943 04 2052

www.irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)  
diruz lagundua:



Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



## Abian da Hondarribia kaleko berrurbanizazioa

Hondarribia kalea berrurbanizatzeko lanak hasi dira maiatzaren 21ean. Zazpi hilabete eta erdiko iraupena edukiko dute. 2011 urtean egindako lanen jarraipena dira. Orduan, Zubimuxu biribilgunearen eta Anzaran kalearen artean egin zituzten lanak. Orain, Hondarribia kaleko 13.ean hasiko dira obrak, Gipuzkoa plazaren parean.

Igoerako bi erreietako bat eta ondoko aparkalekuak hartuko dituzte lanek. Hortaz, Anzaran kaletik ezin izango da Hondarribia kalera igo, ibilgailuz. Zubimuxu biribilgune-raino jaitsi beharko da norabidea aldatzeko. Eremuko bizilagunek, merkatariak eta ostalariak 143 plaza edukiko dituzte eskura Pinarreko parking-ean.



## Etxeberri bidea konpondu du udalak



2016an hasitako lanak amaitu ditu Irungo Udalak, Etxeberri landa bidearen bigarren zatia konponduta. Laskoain eta Arbelaitztxipi baserrien arteko 350m-ko eremuan egin dituzte lanak. Oso hondatua zegoen zenbait puntutan, ura bilduko zuen arekarik ez zegoelako. Gainazala ordezkatu dute, alboko sakangune bat atonduz, ura biltzeko. 3 eta 3,2m inguruko zabalera du bideak, eta %3ko aldapa, gehienez.

606.800 euroko inbertsioa egin du udalak, hiru urteko epean, hiriko landa eremuan bideak konpontzeko. 2016an Etxeberri bidearen lehen zatia konpondu zuen, Ama Xantalen ermitaren eta Ibaietako Gainaren artean. Guztira, 2km ditu Etxeberri bideak, Makatzondo baserriraino. Meaka eta Olaberria auzoen arteko muinoan dago bidea. "Etxeberri bide nagusietako bat da hiriko landa eremuan. Hainbat baserriri eta nekazaritza-ustiategiri ematen dio zerbitzua, ingurua hirigunearekin konektatuz", azaldu du Cristina Laborda Mugikortasun, Bide Publiko eta Obra arloko ordezkariak: "Horregatik, hiriko kaleek edo hiribideek jasotzen duten arreta merezi du".

  
**ANTXETA**  
**IRRATIA**  
 90.5 / 89.7 FM

**Olaizola**

Immobiliaria agentzia

- ✓ Salmenta-Alokairuak
- ✓ Promozio berriak
- ✓ Aholkularitza

Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585  
[info@inmobiliariaolaizola.com](mailto:info@inmobiliariaolaizola.com)  
[www.inmobiliariaolaizola.com](http://www.inmobiliariaolaizola.com)

NOELIA LORENZO PINO, idazlea:

## “Emakumeen salerosketa nazkagarria da”

Orain arteko kasurik ilunenari aurre egin diote Eider Chassereau eta Jon Ander Macua Ertzaintzako agenteek. Hirugarren abentura dute Noelia Lorenzo Pino (Irun, 1978) idazleak sortutako pertsonaiek. *La Sirena Roja* eta *La chica olvidada* eleberrien ondoren, sagako hirugarren atala, *Corazones Negros* argitaratu du aurten idazle irundarrak, Erein argitaletxearekin. *Chamusquina*rekin egin zuen debuta, 2013an. Pixkanaka, Euskal Herriko eleberrri beltzaren munduan nabarmenduz doa.

**La Sirena Roja idatzi zenuenean, saga baten hasiera izango zela imajinatzen zenuen?**

Bai, pertsonaiek bilakaera handiagoa eduki zezakete iruditu zitzaidan. Gainera komisaria sortu nuen, pertsonaia gehiagorekin, lan talde batekin... Niri gustatzen zaizkit polizia sagak, eta irakurleek ere jarraipena eskatu didate.

**Gero eta ñabardura gehiago dituzte pertsonaiek. Garapen bat eman nahi izan diezu?**

Nik oso barneratuta dut, baina era berean, egoera jakin batzuetan, ordura arte aurreikusita ez nituen jokabideak agertzen dira. Nirekin batera hazi dira pertsonaiek.

**Familia desegituratuak sortu dituzu. Gaur egun goak, neurri batean.**

Dibortzioak, senideak galdu dituzten pertsonaiek... Egia da. Egoera pertsonal zailak bizi dituzte pertsonaia batzuek. Irakurleak identifikatuta senti daitezkeela uste dut.

**Protagonistek ikertzen duten kasuari dagokionez, orain arteko beltzera da, ilunena.**

Hala da. Emakumeen salerosketa nazkagarria iruditzen zait. Gizakiaren alde okerrera noraino heltzen den erakusten du. Profil kriminal hori landu nahi nuen. Familia, emaztea eta seme-alabak dituen gizona, baina emakumeak bahitu eta esklabo edukitzen dituen organizazio baten buru dena.

Asko kezkatzen nauen gaia da. Duela gutxi, Donostian bertan emakumeen salerosketan zebiltzan bi sare desegin dituzte. Bertan dago, eta ez dugu ikusten. Iruditzen zait oihartzuna eman behar zaiola, haren kontra borrokatzeko.

**Ez da informazio gehiegi zabaltzen, gaiaren inguruan. Nola egin duzu dokumentazio lana?**

Egia esan ez nintzen gehiegi dokumentatu. Istorioa bururatu zitzaidan, eta amaitu nuenean zalantzak sartu zitzaizkidan. Ez nekielako jendeak sinistuko ote zuen edo ez. Kriminologia ikasi duen lagun bati galdetu nion, eta berak hainbat kasu kontatu zitzaizkidan, liburuan kontatzen dena urrun uzten dutenak. Errealitateak fikzioa gainditzen du, beste behin.

“Oso inplikaturia izan naiz txikitatik, aldarrikatzailea”

“Euskal Tijuana deitu izan dute Irun”

**Eleberrri iluna izateaz gainera, kritika eta salaketa dosi handiak dauzka. Zorrotza izan zara.**

Oso inplikaturia izan naiz txikitatik, aldarrikatzailea. Ez dut beldurrik behar bezain urruti iristeko. Niri gustatzen zait, irakurtzen ditudan liburuetan, salaketa topatzea. Haren bidez, beste gizarteak ezagutzea.

**Ez ohiko egitura du liburuak. Aldatu nahi izan duzu, aurreko atalekiko?**

Bai. Ez dago susmagarririk, ezta galdeketerik ere. Horrela, ikerketa biziagoa dela iruditzen zait. Gainera, irakurleak abantaila du, badakielako zergatik gertatu den erailketa. Zaltzak nituen, alde horretatik, baina ondo funtzionatu duela uste dut.

**Erreferentzia anitzak nabaritzen dira, zentzu horretan?**

Bai. Orain, esate baterako, Domestic Noir azpigenetako eleberrri bat bukatu berri dut. Ez dago ia inbestigaziorik, emakume bat da protagonista, eta idazlea ere bai. Gero sagako laugarren atala etorriko da, eta hori ere ezberdina izango da. Esperimentatzea gustatzen zait, eta nire irakurketak nabaritzen dira.

**Aurreko eleberrietako erreferentziak agertzen dira. Hala ere, bakarka irakur daitezke?**

Bai, oreka bilatzen ahalegintzen naiz, irakurle berriei pertsonaien inguruko argibideak eman arren, irakurle zaharrak ez aspertzeko. Nik uste aberasgarria dela saga hasieratik irakurtzea, baina amaieratik hasi direnak ere badira.

**Irun agertzen da berriro, kasu honetan, Irun ilunena. 90eko hamarkadako Hondarribia kalearen deskribapen latza egin duzu.**

Bai, eta ez da fikziozkoa. Nik hura bizi izan nuen. Hondarribia kalea gabatxoz eta maderoz beteta zegoela esaten genuen denok. Badakit, adibidez, maletegian errifleak eta bateak eramaten zituen jendea zegoela.

Auzoetan ez zen putetxerik falta, Belaskoenean, Pio XIIIn, Larreaundin, edonon. Orain hiria aldatu egin da, nahiko argitsua dirudi, azalean, behintzat. Gauzak gertatzen dira, hala ere. Poliziak badaki hori. Euskal Tijuana deitu izan dute Irun.

**Ondo al doaz promozioa eta salmentak?**

Urtea amaitu arte ez dut zehatz jakingo, baina orain arte Erein argitaletxeko Cosecha Roja bilduman gehien saltzen duenetako bat izan naiz. Ekaina promozioz bete da, Bilbon, Portugaleten, Plentzian... Uztailean Gijongo Aste Beltzean egongo naiz.

Nire inguruan saltzen dut batez ere, argitaletxe txiki batekin zaila baita gehiago zabaltzea. Publizitatea oso murriztua da. Hemen oso pozik nago jendearen babesarekin, baina egia da kanpoan ez nauela inork ezagutzen.

**Idazketa tailerrak ematen dituzu Irunen. Zer moduz doaz?**

Oso pozik nago. CBAn erakusketa bat egin dugu, argazkietan oinarritutako mikroerrelatoekin. Oso pozik nago taldearekin.



# Hoditeria berritzen ari da Txinzer

Hiritarrek ez dute hobekuntza lanen eraginik jasango

Edateko uraren sarea hobetzeko lanean ari da Txinzer Txingudiko Zerbitzuen Mankomunitatea. Zehatzago, Ibaietako depositutik Olaberria, Larreaundi, Santiago, Mendibil auzoetara eta hiri erdira ur edangarria eramaten duten hodiak berritzen ari da entitate publikoa. "Lehentasun handiko lanak" zirela baieztatu du Leire Zubitur Txinzerreko gerenteak, 50 urte baino gehiago zituztelako zaharrek: "Edateko urarena oinarrizko zerbitzua da".

300.000 euroko inbertsioa egingo du Txinzerrek, eta hiru hilabeteko epea du lanak aurrera eramateko. 2025 Inbertsio Planaren baitako hobekuntza lanak dira momentu honetan aurrera eramaten ari direnak. Lehen fase bat burutu zuten 2014 urtean, Urdanibia plaza berritzeko obra aprobetxatuta. Orduan, Santa Elena kalearen azpitik Ermita kaleko zubiraino doan zatiko hoditeria aldatu zuten. Orain, berriz, landa eremuan egingo dituzte lanak. Hortaz, ez dute inolako eraginik edukiko hiriko trafikoan eta aparkalekuetan.

Lanak bukatu bitarteko hiru hilabetetan, Ibaietako deposituak ez du zerbitzurik emango. Haren ordez, alabaina, Blaia eta Artia artean dagoen Buenabista muinoko depositutik egingo dute lotura, bypass erakoa. "Gure helburua da hiritarrei inolako kalterik ez eragitea, normaltasunez bizitzen jarraitu ahal izan dezaten haien egunerokoan", argitu du Leire Zubiturrek. Edateko urarena oinarrizko zerbitzua izanik,

lanak diseinatzerakoan "oso zuhur" ibili direla baieztatu du Txingudiko Zerbitzuak-eko gerenteak. Edozein arazo edo zalantza edukiz gero, 900 119 384 telefono zenbakira deitzeko edo txingudi@txinzer.com helbide elektronikora idazteko gonbidapena luzatu du Zubiturrek.

## Kaleak garbitzeko makina berriak

Irungo eta Hondarribiko kaleak garbitzeko gailu elektriko berriak ditu Txingudiko Zerbitzuak-ek. Kutsadura murrizteko aukera emango dute, ez dutelako CO2rik isurtzen, ezta olio hidraulikoaren jariorik ere. Gainera, zarata gutxiago ateratzen dute, %30 gutxiago, zehatzago. Makina berriek litiozko bateriekin funtzionatzen dute. Zortzi-berderatzi orduko autonomia dute, eta zazpi ordu behar dituzte erabat kargatzeko. 148.356 euroko kostua du gailu bakoitzak. Datozen egunetan egingo dira martxan, hiriko kaleetan.

"Edateko urarena oinarrizko zerbitzua da"

"Gure helburua da hiritarrei inolako kalterik ez eragitea"

Leire Zubitur, Txinzerreko gerentea



**Folder**

Paper-dendarik merkeena  
ZIURTATUTA

Kolon ibilbidea, 2  
(atzeko alde)

www.kopiar.net  
kopiar@kopiar.net  
943 63 93 01



# Hamabost urte bete ditu Caser Anakako eguneko zentroak

Aste osoko egitaraua antolatu dute



Ospakizun astea eduki dute maiatzaren 7tik 11ra, Caser Anaka adinekoen egoitzako eguneko zentroan. Hamabost urte bete ditu aurten, eta egitarau berezia antolatu dute. Goiza eta arratsaldea igarotzeko aukera ematen du eguneko zentroak, jendez inguratuta, eta garapen sozial, fisiko eta mentalak garatzeko jarduerekin. 943 66 77 80 telefono zenbakira deituta, gizarte langilearekin hitzordua eskatzea da lehen urratsa, zerbitzua baliatu ahal izateko. Eguneko zentroa egunero egoten da irekita, jai egunetan ere bai. Caserreko zerbitzu guztiak eskaintzen ditu: errehabilitazioa, psikologia, ile-apaindegia etab.

Endaneara ateraldia egin dute maiatzaren 7an. Bisitaldiaz gozatzeaz gainera, materiala erosi dute, zentroan lorezaintza tailerra egiteko. Arratsaldean, Analia dantza taldearen emanaldia egon da. Astearte goizean xaboi tailer bat egin dute; arratsaldean, bingo berezi bat. Asteazken goizean jolas ginkana bat egin dute, eta arratsaldean zinema emanaldia egon da. Ostegun goizean, lorezaintza tailerra egin dute, Endanean erositako material guztiarekin. Arratsaldean dantza orientalen emanaldiaz gozatu dute. Ostirala

sukaldaritzaren eta gastronomiaren eguna izan da. Goizean gazta tarta prestatu dute, sukaldaritza tailerrean. Eguerdian bazkari berezia egon da, eta arratsaldean musika, egoiliarrekin eta senideekin. Gazta tarta dastatu ahal izan dute.

Eguneko zentrorra goizean goiz iristen dira adinekoak, gehienak autobusez. Bertan gosaltzen dute, eta dutxatu egiten dituzte. Goizean tailerrak edukitzen dituzte, eta bazkal ondoren, jarduera eta animazio ezberdinak edukitzen dituzte. 18:00ak aldera etxerako bidea hartzen dute. Gaitasun fisiko eta mentalak garatzeaz gainera, sozializatu ere egiten dira. Egoiliarrekin elkarbizitza edukitzen dute, eta ateraldi batzuk elkarrekin egiten dituzte. Plaza pribatuak daude eguneko zentroan, baina hitzartuak ere bai, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Pirinio Atlantikoetako departamentuarekin. Izan ere, Hendaiako bizilagunak ere joaten dira eguneko zentrorra, eta autobusa bera, bertatik pasatzen da.

# Ohorezko Mailara igotzeko abagunea dute BATEko gizonezkoek, lehen aldiz

Ekainaren 16an izango da ligako hirugarren eta azken jardunaldia

Espero zitekeen mailaren ginetik ibili dira Super Amara Bidasoa Atletiko Taldeko gizonezkoak, Estatuko Lehen Mailako ligan. Lehen bi jardunaldiak irabazi dituzte, eta igoseraren bila ariko dira hirugarrenean. Ohorezko Mailara jauzia emateko benetako aukerak dituzte, lehen aldiz. Klubeko emakumeek, bestalde, maila gorenari eustea ondo bideratua dute. Hortaz, datorren urtean bi taldeak Ohorezko Mailan eduki ditzake BATEk.

Hutsune nabariak eduki ditu aurten Super Amara Bidasoa Atletiko Taldeak, gizonezkoetan. Aurreko urteetan maila handia eman duten atleta batzuek kluba utzi dute, Ohorezko Mailan ari diren taldeetan lehiatzeko. "Hori dela eta, pentsatzen genuen Estatuko Lehen Mailan jarraitzeko lehian ibiliko ginela", adierazi du Ibon Muñoz BATEko kirol zuzendariak. Lehen bi jardunaldietan, alabaina, ezustekoa eman eta garaipenak lortu dituzte, Monzonen (Huesca) eta Donostian.

Atleta gehienak haien mailaren ginetik ibili direla onartu du Muñozek. Mikel Ruiz Lasa beterranoak azalpen argia du: "Klubeko jende askorentzat, liga da lehentasun nagusia, banakako lehiaketetan nabarmentzeko aukerarik ez dugulako. Horregatik motibazio bereziarekin heltzen diogu". Mailarik onena eman beharko dute berriro, azken jardunaldian, arerio gogorrek gainditzeko. "Oso oso estu egongo da. Zentimetro eta zentesima kontua izango da", baieztatu du Muñozek: "Surco Aventura da talderik indartsuena. Baina gainerakoak oso gertu gaude elkarrengandik".

## Urtetako lanaren emaitza

Saria handia izan daiteke. Mikel Ruiz Lasak Euskadiko bigarren mailan ezagutu du BAT, EAEko zortzi talde onenen artean ere ez zegoenean. "Estatuko Lehen Mailara iritsi ginenetik, mailari eusteko borrokan ibili gara beti", argitu du Ruiz Lasak. Orain, Ohorezko Mailara igotzeko abagunea du BATEk. "Klubarentzat ametsa litzateke bi taldeak Ohorezko Mailan edukitzea. Euskadin ez dago halako kasurik, eta estatuan ere gutxi dira, gehienak, probintzia hiriburuetako klubak", argudiatu du Muñozek: "Arlo ekonomikoan ez litzateke aldaketa handirik egongo. Baina aitortza lortzen saiatuko ginateke".

Ekainaren 16an izango da hirugarren eta azken jardunaldia, Salamancan. Autobusa jarriko du klubak, animatzen den jendeak gerturatzeko aukera izan dezan. Proba baikoitzeko atleta bakarra ariko da.



**"Orain arte, mailari eusteko lehian ibili izan gara beti"**

Mikel Ruiz Lasa, BATEko atleta

**"Klubarentzat ametsa litzateke bi taldeak Ohorezko Mailan edukitzea"**

Ibon Muñoz, BATEko kirol zuzendaria

## Aurreikuspenak bete dituzte emakumeek

Ohorezko Mailan ari dira Super Amara Bidasoa Atletiko Taldeko emakumeak, bigarren urtez. Iaz asko sufritu behar izan zuten mailari eusteko. Aurten, aldiz, ez dirudi hala izango denik. Haien mailan aritu dira lehen bi jardunaldietan, hirugarren postuan. "Hutsune batzuk eduki ditugu, baina ordezkatu ahal izan ditugu", aipatu du Ibon

Muñozek. Ekainaren 16an Valladoliden, azken jardunaldian, mailari eusteko helburua edukiko dute. Ondo bideratua dute, eta ezustekorik ez baldin bada, ez dute arazo handirik edukiko.

EGUNEKO MENUA · DASTATZEKO MENUA · KARTA · PINTXOAK ETA ERRAZIOAK



Meaika auzoa, 9 - 20305 IRUN  
Tel.: 943 841 964



FELIX MANSO IBARLA JATETXEA



info@felixmanso.com  
www.felixmanso.com



# Eskualdeko mendate nagusiak igaroko ditu Juanma Garate martxak

Txirrindularitzaren inguruko asteburua antolatu du Irungo Txirrindulari Elkarteak, ekainaren 16 eta 17rako



**IX.edizioa izango du Juanma Garate Zikloturista Martxak. Egonkortuz doa Irungo Txirrindulari Elkarteak antolatzen duen proba. Bi ibilbide edukiko ditu aurten, 72km-koa laburra eta 122koa, luzea. Ekainaren 17an 8:00etan irtingo dira txirrindulari guztiak San Juan plazatik. Bezperan, Bizikleta Festa egongo da San Juanen bertan, 16:30etatik aurrera. Herri Spinning Maratoia eta haurrentzako gymkana egingo dituzte.**

Behin baino gehiagotan aldatu izan du Irungo Txirrindulari Elkarteak Juanma Garate Zikloturista Martxaren ibilbidea. Aurten, kirol erronka eta paisaia "pizgarriak" bilatu nahi izan dituztela azpimarratu du Juanjo Garagarza I.T.E.ko presidentek. "Bidasoko errepide bihurrietan zehar ibiliko dira parte hartzaileak. Horiek izan dira Juanma Garateren entrenamendu eremu, urtetan zehar", azaldu du Garagarzak. Ibilbide luzeak 122km eta 2.480m-ko desnibela edukiko du. Laburrak, berriz, 72km eta 1.245m-ko desnibela.

Maiatzaren 17an izango da martxa, Sabiñanigon (Huesca) egiten den Quebrantahuesos zikloturista famatuaren aurreko astean. "Test bikaina izan daiteke", adierazi du Juanjo Garagarzak. 8:00etan aterako dira parte hartzaile guztiak San Juan plazatik, Hondarribiko Higer itsasargira, berriro Irunera itzultzeko. Tarte horretan, klubeko haurrak ere egongo dira errepidean, martxako parte hartzaileekin batera. Azken horiek N-121 errepidea hartuko dute ondoren, Lesakara bidean. Agina, Aritxulegi eta Gurutze igoko dituzte, eta Olaberriako mendatetik, San Juan plazara itzuliko dira. Bertan amaituko da ibilbide laburra.

Ibilbide luzearekin ausartzen direnek Erlaitz, Arkale eta Jaizkibel gaingitu beharko dituzte oraindik, San Juan plazako helmugara iritsi aurretik. Bi ibilbideetako edozeinetan edo spinning maratoian parte hartzeko, kirolprobak.com web gunean egin daitezke izen-emateak. Ekainaren 1etik aurrera, federatuek 35 euro ordaindu beharko dute, 45, aldiz, federatuta ez daudenek. Spinning maratoiko izen-emateak 25 euro balio du. Martxako dortsalak eta maillotak Bizikleta Festan emango dituzte, ekainaren 16an San Juan Plazan, 17:30etatik 20:00etara.

## Palmaresaz harago

Juanma Garate txirrindulari profesional ohiaren izena darama Irungo Txirrindulari Elkarteak antolatzen duen martxak. Bidasoko harrobitik ateratako txirrindularien artean, palmares handiena duena da. Giroan, Tourrean eta Vueltan etapa garaipenak ditu, baita sailkapen orokor onak ere. Gaur egun, Ef-Drapac-Cannondale taldeko managerra da. Bere emaitzez harago, alabaina, klubari beti eskaini izan dion laguntza nabarmendu du Juanjo Garagarza Irungo Txirrindulari Elkarteko presidentek: "Beti eskaintzen dizkigu bere babes eta irudia, harrobiko txirrindularitza sustatzeko edozein jardueratarako". Garateren ondoan bizikletan aritzeko abagunea edukiko dute martxan parte hartzen dutenek.

**"Bidasoko errepide bihurrietan zehar ibiliko dira parte hartzaileak"**

**"Garatek beti eskaintzen dizkigu bere babes eta irudia, harrobiko txirrindularitza sustatzeko edozein jardueratarako"**

Juanjo Garagarza, Irungo Txirrindulari Elkarteko Presidentea

# Gipuzkoako Kostaldea II: Zarautz-Getaria-Zumaia-Deba

## GORKA MARTINEZ

unpaisenmimochila.blogspot.com

**Denbora:** 4 ordu eta erdi (Geldialdirik gabe).

**Distantzia:** 21km.

**Desnibela:** 765m.

**Zailtasuna:** Erraza. Luze samarra, baina ondo seinaleztatua eta desnibel handirik gabekoa. Ez dago zailtasun teknikorik.

Zarautz eta Deba arteko bidea egingo dugu, GR-121a eta Santiago Bidea uztartuz. Txakolin mahastietan eta flysh ikusgarrietan zehar ibiliko gara. Zarauzko hondartzan hasiko dugu ibilbidea. Bertan Santiago bidea hartuko dugu, Getariara doan errepidearen ondotik. Malkorbe eta Gaztetape hondartzak ikusi ondoren, asfaltozko pista hartuko dugu, txakolin mahastietan gora eramango gaituena. Goian, GR-121 bidearekin bat egingo dugu. Bertatik, Ernio mendiaren ikuspegi ederraz gozatu ahal izango dugu.

Aurrerago, Zumaia ikusiko dugu, behealdean. Aldapa jaitsita, herrian atsedean txiki bat hartu ahal izango dugu (1:30). Santiago bidea hartuko dugu berriro, aldapan gora. Elorriaga merenderora iritsita, bidegurutze bat topatuko dugu. GR-121 bidea hartuko dugu, Itziar herrira beharrean, Flysch eremura eramango gaituena (2:15). Mendata eta Sakoneta hondartza ederrak ikusiko ditugu (3:00). Santa Katalina ermitara iritsiko gara, eta bertatik, Deba herrira jaitsiko gara, ibilbidea bukatzeko (4:30).



# Irungo La Salle HH



# Denborapasak

## Abizenak

F	I	N	A	O	P	E	Y	D	Y	G	P	O	O	R	E	O
E	Z	D	L	E	X	I	N	A	H	H	E	J	U	N	S	M
R	P	I	B	I	K	A	S	E	Y	J	X	I	Q	H	A	M
N	E	Y	E	U	E	E	B	M	Y	B	K	E	S	M	S	L
A	U	I	R	G	C	U	U	M	O	S	Y	W	Y	O	E	P
N	L	W	D	Y	P	H	M	R	V	L	U	I	E	N	I	K
D	O	D	I	A	B	P	F	J	W	E	A	T	L	C	M	M
E	P	I	U	O	O	E	A	U	A	I	L	Z	A	Y	T	B
Z	E	Y	Y	K	E	O	L	F	K	Y	I	V	A	N	N	F
G	A	S	R	E	Q	E	V	C	F	H	E	E	S	B	J	E
H	R	J	F	I	A	G	Q	Q	Q	U	E	F	E	Z	A	E
X	A	B	E	N	G	O	E	T	X	E	A	T	C	R	X	L
Y	N	Y	P	T	X	Q	S	I	H	O	I	T	Y	Z	O	K
L	B	M	I	A	Z	H	W	P	O	A	A	A	Y	S	H	N
F	U	Q	S	F	U	S	O	X	I	G	Z	O	E	N	U	G
U	R	O	O	A	X	A	Y	Y	S	C	O	U	K	K	O	N
U	U	Y	T	I	U	T	I	E	Z	Y	E	P	C	L	Y	W

				6		2		5
2		8			4	7		6
		5		7	9			
						6		
7			8		6			9
				2	5	3		7
8	7			5			6	4
	9		3				7	
	2	4	6					

Bengoetxea, Aranburu, Fernandez, Alberdi, Olazabal

(Emaitzak: 15. orrialdean)



## DESIRA GOSE

Doinua: Gaur gurutzatu gara

Egilea: Manu Goiogana Bengoetxea

Bistaratu denean  
ilargi zurbila  
itxi dut kremailera,  
lotu zapatila.  
Gosea da desira  
baten kiribila  
Noan, zitara garaiz  
iritsi nadila,  
Bihotza asetzeko  
menuaren bila

Elkar topatu dugu,  
berriro, Izaro,  
eta irri bat egin  
didazu emaro.  
Aske zabiltza, alai,  
gustura zeharo,  
mahai gaineko ura  
baino gardenago  
eta nire bihotza  
egarriak dago

Lehen galdera "Kaixo,  
zelan doa dena?"  
elkarrizketa sortu  
duen ekimena.  
Hitzez hitz sortzen joan  
gara ondorena;  
ogi puska bat zara,  
pertsona onena,  
nire etxeko labean  
egosiko dena!

Elkarrizketak segi  
duenez primeran  
ohartzetako gaude  
etxeko harreran.  
Muxu bat ematean  
lehenengo aukeran  
gure mingainak ia  
joan dira hegan  
helize forma duten  
makarroiaren eran.

Gose grina begitik  
ahoratzen bada  
nola jan gura beste  
baina zerbait laga?  
Berriz ere hasi da  
zimurtzen izara!  
entsaladan dauden bi  
urazen gisara  
gu ere hostoz hosto  
biluztuko gara!!

Begiak distiratsu,  
masailak melenga;  
mingainak plazererantz  
aurkitu du xenda.  
Erantzi dugunean  
gure azken prenda  
zure\_haragi xamurrez  
ase nahi nuen ba  
ahoaan urtu ordez  
ahoa urtzen da.

Sagar eta udare  
puskak ditugula  
marrubi zaporea  
nola disimula,  
mazedonia goxo  
batetzat formula.  
Bion belarritarra  
"mmm" azken xuxurla  
esanaz jandakoa  
gustatu zaigula!!

Desioa zegoen  
maitasunaren zain,  
pasiotik jan dugu  
irriz hasteko lain.  
Lasaitutako gorputz,  
mindutako ezpain,  
bihotza asetzearan  
gure goseaz gain  
digestioa egin  
behar dugu orain.

## Lekaenea LH3

### MINIUM KAXA

Aurten, 5. mailako ikasleek, eskulan ugari egin ditugu urtean zehar, horien artean, "Minium kaxa". Zuek ere horrelakoa egin nahi baduzue, bildu beharrezkoa den materiala eta jarraitu ondorengo pausoak:

### MATERIALA

- Goma EVA: horia, urdina, beltza, grisa, zuria
- Silikona beroa
- Pistola
- Paperezko hodi txiki bat
- Plastikoa gardena
- Zuzenkia
- Errotulagailua edo boligrafo bat
- Guraizeak



### NOLA EGIN

**Lehenik** paperezko hodia moztu bi zatitan (6,5 cm-koa).

**Gero**, goma EVArekin bi zatia estali eta kolatu.

Kontuz egin, hodiaren beheko aldean, 5,5 cm-koa izan behar da. Goiko aldean beriz, 1cm luzeago moztu.

**Ondoren**, burua eta oinarria goma EVArekin estali eta ondo itsatsi.

**Jarraian**, jantzia egin eta kolatu panpinaren gainean.

Panpina osatzeko, besoak eta eskuak moztu eta itsatsi gorputzean.

**Bukatze**ko, begia betaurrekoduna egin eta itsatsi goiko aldean.



LEKA-ENEA 5.MAILA



# bideosare

Bideoak zure erara!



- > Ikus-entzunezko proiektuak
- > Bideo grabaketa eta edizioa
- > Multimedia

bideosare.com



MARIA YUBERO, mekanika ikaslea:

## “Ideia bat edukitzea eta zuk zeuk aurrera eraman ahal izatea da gehien erakartzen nauena”



“Piezak diseinatzeko eta sortzeko aukerak eman zidan arreta”

“Lan arlo honetan gizonetzkoak bezain eraginkorra naizela erakutsi dut”

Enpresen langile eskariari erantzuteko zailtasunak ditu Lanbide Heziketak, industriaren sektorean, bereziki. Lana badago, ikasleak baino gehiago. Bereziki emakumeen artean, gehien-gehienetan alboratu egiten den aukera da Lanbide Heziketa. Irungo La Salleko erdi mailako mekanika zikloan, Maria Yubero da salbuespena. Emakume bakarra izan da ikasgelan. Orain Italian dago, praktikak egiten. Enpresan ere, emakume bakarra da.

### Nolatan erabaki zenuen, DBH bukatuta, Lanbide Heziketan hasia?

Nire bizitzako bidea argi ez nuen arren, banekien zer nahi nuen inguruan. Batxilergoak ez zizkidan nire gustuko ateak irekitzen, horregatik, Lanbide Heziketan izena ematea erabaki nuen, erakartzen ninduten gai horietan zentratzeko.

### Zergatik erakartzen zintuen mekanika zikloak?

Piezak diseinatzeko eta sortzeko aukerak eman zidan arreta... Ideia bat edukitzea, eta zuk zeuk aurrera eraman ahal izatea. Kontuan hartu nuen, era berean, gaur egun Euskadin mekanika industrialak

momentu ona bizi duela.

### Espero zenuen bezalakoa izan da?

Egia esan ez, baina aurreikuspen handirik ere ez nuen egin. Nire ustez, beste antolamendu batekin, gehiago ikas zitekeen gradu honetan.

### Nolakoa izan da esperientzia?

Ona izan da, formatzeko aukera izan dut, eta nahiz eta konturatu naizen ez dudala arlo honetan jarraituko, etorkizunean lagungarri izango zaizkidan gauza asko ikasi ditut.

Emakume gisa esan beharra dut, ikasge-

lan eta praktiketako enpresan bakarra izanik, ikasi dudala lan arloan norberak duela sexuen arteko ezberdintasunak ezabatzeke ardura.

### Praktikak Italian egiten zabilta. Non? Zein enpresatan?

Vicenzan nago, Veneto erregioan, Venezia eta Verona artean. Meccanica Gasparotto enpresan nabil lanean.

### Erabakiarekin asmatu duzula uste duzu?

Praktikak atzerrian egitea orain arte eduki dudana esperientzia onena izan da, zalantzarik gabe. Askok ikasi dut arlo pertsonalean, ia profesionalean baino gehiago.

### Zein lan egiten ari zara?

Piezak egiten ari naiz, tornuekin eta fresagailuekin. Oso gustura nago, parte hartzen uzten didate. Oso aberasgarria izaten ari da esperientzia, tailerrean lanean ari den lehen emakumea naizelako. Ema-

kume gisa, lan arlo horretan gizonetzkoak bezain eraginkorra naizela erakutsi dut.

### Lanean jarraitu nahiko zenuke gero?

Nire lehentasuna formatzen jarraitzea da. Elektromekanikako erdi mailako gradua, lehenengo, eta automozioiko goi mailakoa, ondoren.

### Emakumeek ez dute Lanbide Heziketa hautatzeko ohitura handirik. Zergatik?

Faktore asko daude, eragiten dutenak, eta beharbada, graduen arabera izena ematen duten emakumeen ehunekoak aldatuko dira. Orokorrean, esango nuke gizonetzkoek azkarrago formatu nahi izaten dutela, arlo praktikoa batean zentratuz, lehenago lan egiten hasteko. Emakumeek gehiago jotzen dute unibertsitate ikasketetara, diziplina handiagoarekin. Uste dut jaso dugun heziketak sexuen arteko aldeak markatu dituela.

Aukeratu zure etorkizuna

ATE IREKIAK 23

AURREMATRIKULA

ekainaren 4tik - 15era

La Salle

Irún

☎ 488 47 47 / ✉ yubero@laxsalle.es / 📍 Euzko Mendiak, 11 / 🌐 www.laxsalle.es

ZIKLO BERRIA ESZIALDEAN

- ✖ Mekanika elektromezkanikoko lehi maila
- 🏭 Mekanizazio lehi maila
- 🏢 Administrazio eta finantzak lehi maila
- 🤖 Automatizazio eta robotika industriala lehi maila
- 🏭 Fabrikazio mekanikoko produktioaren programazio lehi maila

Lanbide Heziketa



- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: [igazte@irun.org](mailto:igazte@irun.org)
- Web gunean: [www.irun.org/igazte](http://www.irun.org/igazte)
- WhatsApp bidez: 607 771 173

## Festan Blai ekimenaren dinamizatzaile izateko deialdia

Jaien eremuan gazteen artean euskara sustatzeko ekimena da Festan Blai

### Bete beharreko baldintzak:

- 18 eta 25 urte artean edukitzea
- Euskaraz ongi hitz egitea
- Irun edo inguruko herriren batekoa izatea
- Gazteekin lan egiteko gogoia eta gaitasuna
- Gaez lan egiteko aukera

### Egin beharrekoak:

- Dinamizatzaileek gunearen antolaketa eta dinamizazio lanak egin beharko dituzte, gazteekin zuzeneko harremana sortu eta parte hartzera animatuz
- Udan zehar hainbat herritako jaietan burutuko da lana

### Informazioa gehiago:

[www.irun.org/igazte](http://www.irun.org/igazte)



## Google edo Pixar-entzat lan egitea gustatuko litzazuke?

Txikitatik teknologiaren, bideojokoen edo entretenimenduaren sektoreko enpresa erraldoi batean lan egitea amestu baduzu, deialdi hau interesatuko zaizu:

Pixar Animation, Disney Career, Google, Amazon eta Sega enpresek berekin lan egiteko eta talentu gaztea erakartzeko praktikak aurkeztu berri dituzte.

Hona deskripzioa:

- Praktikak Pixar Animation Studiosen
- Praktikak Disney Careerren
- Praktikak Googlen
- Praktikak Amazonen
- Praktikak Segan

### Informazioa gehiago:

[www.irun.org/igazte](http://www.irun.org/igazte)



## ASEXORA- T

### Ba al duzu zalantzarik sexualitateari, maitasun-, sexu-harremanei, sexu orientazioari, nortasun sexualari buruz?

Gazteria Zerbitzuak gune hau sortu du gazteok hitz egiteko eta sexualitatearekin eduki ditzakezen zalantzak argitzeko: maitasun-, sexu-harremanak, kontrazepzioa, sexu orientazioa, gorputzaren biologia, hausnarketak?

ANIMA ZAITEZ ETA BOTA GALDERA!

<http://www.irun.org//enlaces/00034296.pdf> estekan irakurri ahal dituzu Igazteko Asexora-T Txokoan egiten dituzuen galderak.

Gainera, HILABETEKO AZKEN OSTEGUNETAN, 17:00etatik 20:00, Raquel Calvo hezitzaile eta sexologoak zure kezkei erantzungo die aurrez aurre eta banaka MARTINDOZENA GAZTELEKUAN.



# EKAINAK

## 1-3

### Erdi Aroko Azoka Behobian

**Zer?**

V. Erdi Aroko azoka Behobia auzoan

**Ordua:**

11:00etatik 23:00ak arte

**Non?**

Behobia auzoan

**Prezioa?**

Doan

## 8

### Eskulan tailerra ingelesez

**Zer?**

Lacunzak antolatutako eskulan tailerra ingelesez. 8-12 urte bitarteko haurrentzat

**Ordua?**

17:30-18:30  
Non: CBA Udal Liburutegian.

**Izen-ematea?**

Udal liburutegian edo 943505421 telefonora deituz, astelehenera ostiralerara 09:00etatik 20:00etara edo larunbatetan 8:30etik 13:00era.

## 8-10

### Out market! azoka

**Zer?**

Out market! Gipuzkoako outlet azoka

**Ordua?**

10:00-22:00

**Non?**

Ficoban.

**Informazio gehiago?**

feriaoutletgipuzcoa.com



### Denborapasen emaitzak

F	N	A	D	P	E	Y	D	Y	G	P	O	O	R	E	O		
E	Z	D	L	E	X	I	N	A	H	H	E	J	U	N	S	M	
R	P	I	E	I	K	A	S	E	Y	J	X	I	O	H	A	M	
N	E	Y	E	U	E	E	B	M	Y	B	K	E	S	M	S	L	
A	U	I	R	G	C	U	U	M	S	Y	W	Y	O	E	P		
N	L	W	D	Y	P	H	M	R	V	J	I	E	N	I	X		
D	D	D	I	A	B	F	F	J	W	E	A	J	L	C	M		
E	P	I	U	C	O	E	A	U	A	L	Z	A	Y	T	B		
Z	E	Y	K	E	O	L	F	K	Y	I	V	A	N	N	F		
G	A	S	R	E	G	E	Y	C	F	H	E	E	S	B	J		
H	R	J	F	I	A	G	O	O	Q	U	E	F	E	Z	A	E	
X	A	B	E	N	G	O	E	T	X	E	A	T	C	R	X	L	
Y	N	Y	F	T	X	O	S	I	H	O	I	T	Y	Z	O	K	
L	B	M	I	A	Z	H	W	F	D	A	A	A	Y	S	H	N	
F	U	G	S	F	U	S	O	X	I	G	Z	O	E	N	U	G	
U	R	O	O	A	X	A	Y	S	C	O	U	K	K	O	N		
U	U	Y	T	I	U	T	I	E	S	Z	Y	E	P	C	L	Y	W

9	4	7	1	6	8	2	3	5
2	1	8	5	3	4	7	9	6
3	6	5	2	7	9	4	8	1
4	5	1	7	8	3	6	2	8
7	3	2	8	1	6	5	4	9
6	8	9	4	2	5	3	1	7
8	7	3	9	5	2	1	6	4
5	9	6	3	4	1	8	7	2
1	2	4	6	8	7	9	5	3

## 1-4

### Anaka-Puiana auzoko Jaiak

**1ean**

- 17:00: Umeen margo lehiaketa elkartearen egoitzan.
- 17:00: Martindozenea Gaztelekuaren eskutik, Gaztetxef 13 eta 17 urte bitarteko gazteentzat Embajador Aristegi enparantzan.
- 19:00: Jaien hasiera. Frontoitik atera eta auzoko kaleetan zehar erraldoiak eta buruhandiak ibiliko dira Bidasoako Txarangaren eskutik.
- 21:30: Rock kontzertua Embajador Aristegi enparantzan. La Polla Records eta Barricadaren omezezko taldeak.

**2an**

- 10:00: 3x3 Basket txapelketa, Erroibide Klubak antolatua, Embajador Aristegi enparantzan.
- 12:00: Brotxe tailerrak hirugarren adinekoentzat, Caser-ek antolatuta, Embajador Aristegi enparantzan.
- 14:00: Herri bazkaria Embajador Aristegi enparantzan. Txartelak maiatzak 30 arte salgai egongo dira Ana okindegian. (Prezioak: 22€ helduak eta 10€ umeak).
- 16:00: Puianako BTT zirkuituan Irun Hiriko Sari Nagusia: Alebin eta Infantil mailak (lehiaketa ofiziala).

Jaizkibel tabernan.

- 18:00: Batukada: auzoan zehar Zozongo taldearekin.
- 20:00: Berbena Tsu-mani orkestrarekin Embajador Aristegi enparantzan.
- 3an**
- 09:00: Txistularien Udal Banda auzoko kaleetan zehar.
- 10:00: Patata tortilla lehiaketa, Washington tabernaren ondoan. Izen-ematea: maiatzak 17 eta 24 Auzo Elkartean (19:00 - 20:00) Eguraldi txarra izatekotan, Embajador Aristegi Enparantzan ospatuko da.

- Eskola eta Kontserbatorio trikitixa taldea auzoko kaleetan zehar ibiliko dira.
- 12:30: Toka txapelketa: Mariñok antolatuta, tabernaren aurrean.
- 12:30: Bandaren kontzertua Embajador Aristegi enparantzan.
- 16:30: Umeentzako joakoak.
- 18:00: Txokolatada Caser egoitzak antolatuta.
- 18:30: Dantza erakustaldia.
- 4ean**
- Embajador Aristegi enparantzako barraketan umeen eguna.

- 16:30: Truk txapelketa
- 11:30: Auntxa Trikitixa

# urtzi goi gana

I N M  B I L I A R I A

**Zure irtenbidearen giltzak ditugu.  
Gertukoak, bertakoak gara**



- ✓ **Alokairua**
- ✓ **Salmenta**
- ✓ **Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiriak**
- ✓ **Arkitektura zerbitzuak**
- ✓ **Home Staging zerbitzuak (etxebizitzaren atontzea)**



[www.inmobiliariaurtzigoigana.com/eu](http://www.inmobiliariaurtzigoigana.com/eu)

 **661875785**

**Zure etxebizitza ekartzen badiguzu,  
Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria eta Home Staging  
zerbitzuak dohain edukiko dituzu (kontsultatu baldintzak)**